Iparraguirren Cantac

NERE AMAC BALEQUI

1

Cibilac esan naute
Biciro egoqui
Tolosan biar dala
Gauz au erabaqui
Giltza pian sartu naute
Poliqui poliqui
Negar eguingo nuque
Nere amac balequi.

2

Jesus tribunalian
Sutenian sartu
Etziyon Pilatosec
Culparic billatu
Neri ere arquitu
Ez dirade barcatu
Cergatican ez dituzte
Ezcubac garbitu.

3

Carcelatic atera ta
Fiscal echera
Abisatu ciraten
Juateco beriala
Ez etortzeco gueyago
Provinci onetara
Orduan artu nuan
Santander aldera.

ADIYO EUSKAL-ERRIARI

1

Gatze gaztetatican
Erritic campora
Estranjeri aldean
Pasadec dembora
Eguia alde guztietan
Toqui ona badira
Baña biotzac dio
Zuaz euskal-erria.

2

Lur maite emen utzea
Da negargarria
Emen gueldıtzen dira
Ama eta Erria
Urez noa icustea
Bai mundu berria
Oranche bai naizela
Errnqui garria.

3

Agur nere biotzeco
Amacho maitea
Laister etorrico naiz
Consola zaitea
Jaungoicuac bada nai
Ni urez juatea
Ama certaraco da
Negar eguitea.

NERE MAITIARENTZAT

1

Ume eder bat icusi nuben
Donostiaco calean
Itz erdicho bat ari esan gabe
No la pasátu parean:
Gorputza zuan lirañá eta
Oñac cebiltzan airean
Politagoric ez det icusi,
Nere beguien aurrean.

2

Aingueru zuri pare gabea
Euzkal-errico alaba,
Usteric gabe zugana beti
Nere biotzac narama;
Icusi nayan beti ornabill
Nere maitea ¡au lana!
Zoraturican emen naucazu
Beti pentzatzen zugana.

3

Gala gaztec galdetzen dute
Aingueru ori nun nago
Nere maitea nola ditzen dan
Ez du iñorchoc jaquingo
Ez berac erec esluque naico
Confianza orretan nago
Amorio dun biotz oberic
Euzkal-errian ezdago.

ALEGRICO TRAPERARI

1

Egunez trapu biltzen
Gabean dantzan lerzen
Beti umore onean
Ibiltzen guera
Eta goisean goiz
Calera irten da
Lo gosoan daudenac
Esnatutzeco.

2

Atera, atera
Trapuac salzera
Nic erosten det
Modu onetan
Ardit albarca
Cuarto elpargata
Ta burni zarra
Champonian.

Nesca batec besteari esatencion emacumechuac ¿icusi alden-caboa? Ez caboric eta es sargentoric ere gende clase orrequin tratatzen degula pentzatzen alden, nesca, ja jay conversación y todo lo que se quiere zipirri zaparra cer nai baño gende clase orrequin tratatu guchi, goacen berris nesca trapuac biltzera.

Imp. S. de Diego.—EIBAR.